

3seuskadi

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroa

**Abendua
2021**

Egilea: Hirugarren Sektorre Sozialeko Euskal Behatokiko taldea.

EAEko administrazio orokorraren tresna tekniko bat da Behatokia, gizarte-zerbitzuen inguruko gaien eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren mendekoa. Informazioa eta ezagutza biltzea, sistematizatzea, eguneratzea eta sortzea da Behatokiaren ardura, baita informazio eta ezagutza hori Hirugarren Sektorre Sozialarekin lotutako eremuetan eta bertako erakunde eta sareetan hedatzea ere (Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legearen 25.1. artikulua).



Behatokiaren argitalpen guztiak kontsultatzeko eta dohainik deskargatzeko aukera dago Behatokiaren webgunean (www.3seuskadi.eus) eta <https://ikusmirak.eus/> webgunean.

Argitalpen horien bidez, hirugarren sektorre soziala hobetzen lagundu nahi dugu. Horregatik, ahalik eta gehien hedatzea eskertzen dugu eta haiek banatzea, kopiatzea eta berrerabiltzea baimentzen dugu, baldin eta diru-irabazi asmorik gabe egiten bada eta egileak aitortzen badira.



Aurkibidea

SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA	1
1. NORTASUNA	3
1.1. ZIFRA NAGUSIAK.....	3
1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?	4
2. JARDUERA.....	6
2.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN?	6
2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?	7
2.3. NOIZ ARTE HEDATZEN DA HAREN EKINTZA?	8
2.4. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?	9
2.5. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE?	10
2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?.....	11
2.7. GIZARTERATZEKO ENPRESAK ETA ENPLEGUARAKO ZENTRO BEREZIAK	16
3. PERTSONAK	17
3.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA ORDAINPEKO LANGILEAK.....	17
3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK	19
4. BALIABIDE EKONOMIKOAK.....	21
4.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE?	21
4.2. NONDIK DATOR FINANTZIAZIOA?	21
4.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK?	22
5. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK	24
5.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?.....	24
5.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE?	25
5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?	26
6. HARREMANAK	27
6.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANA?	27
6.2. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK?	28
6.3. SEKTOREKO ERRONKA BATZUK.....	28
7. DATUEN ALDERAKETA, 2019-2021	30

8. COVID-19AREN PANDEMIAREN INPAKTUA.....	34
8.1. ERAKUNDEEK HARTZAILEEKIN DUTEN ERLAZIOAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUA	34
8.2. ERAKUNDEEN HARTZAILEENGAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUA.....	36
8.3. PANDEMIAK ERAKUNDEEN JARDUERETAN ETA ZERBITZUETAN IZAN DUEN INPAKTUA.	38
8.4. PANDEMIAK ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIOENGAN ETA ORDAINPEKOENGAN IZAN DUEN INPAKTUA	39
8.5. PANDEMIAK ERAKUNDEEN BALIABIDE EKONOMIKOETAN IZAN DUEN INPAKTUA.....	40
8.6. HARTZAILEEKIN DAGOEN ERLAZIOAREN GAINEKO ERRONKAK PANDEMIAREN INPAKTUAREN OSTEAN	42
8.7. ERAKUNDEEN ERRONKAK PANDEMIAREN INPAKTUAREN OSTEAN	43
8.8. PANDEMIAREN INPAKTUAREN DATUAK ALDERATZEA 2020-2021	44

SARRERA ETA FITXA TEKNIKOA

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala (aurrerantzean, EHSS) osatzen duten erakundeak herritarren ekimen libretik sortu dira eta antolatutako elkartasuna eta herritar guztien parte-hartze soziala bideratzen dute, zehazki izaera sozialeko egoera, arazo edo beharrek eragindako pertsonena, familia, taldeena edo komunitateena. Jardueraren garapenean, erakundeek behar sozialen erantzuna intzidentzia sozialekin uztartzen dute zerbitzuen bitartez, eta beraien jarduerarekin funtsezko ekarpena soziala egiten dute.

Txosten honetan, Hirugarren Sektorre Sozialaren Euskal Behatokiko lan guztietan bezala, 2016ko maiatzaren 12ko Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialaren 6/2016 Legeak¹ jasotzen duen Hirugarren Sektorre Sozialaren definizioa hartzen dugu abiapuntutzat. Definizio horren arabera, sektore horretako parte dira egoitza eta jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten gizarte-ekimeneko erakundeak, eta esku-hartze sozialeko jardueren bidez, gizarteratzea, garapenerako lankidetzak, zaugarritasun- edo bazterketa-, desberdintasun-, babesgabetasun-, desgaitasun- edo mendekotasun-egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideen baliatze eraginkorra sustatzea xede nagusitzat dutenak.

Gainera, Euskadiko hirugarren sektorre sozialeko saretzat jotzen ditu beste erakunde batzuk ordezkatzeko dituzten bigarren mailako eta goragoko mailetako erakundeak, baita kolektibo zehatz bat ordezkatzeko dituzten Euskadiko hirugarren sektorre sozialeko esku-hartze zuzeneko erakundeak ere, dagokion lurraldean edo geografia eremuan kolektibo hori ordezkatzeko duen sarerik ez dagoenean.

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala sustatzeko Estrategiak² –egungo araudi-esparrua sendotzen duena– 33. jarduketan, informazioa eguneratuta izatearen garrantzia nabarmendu zuen, eta honakoa zehaztu zuen: “Sektorearen, haren ezaugarrien eta haren ekarpenen gaineko datu sistematikoak eta aldi behingo datuak eskuragarri izatea oinarritzat da diagnostikoak, plangintzak eta ebaluazioak egiteko, eta lagungarria izan da eta izango da sektorea egituratzeko, erakundeak sektorearekin identifikatzeko eta sektorea aintzat hartzeko”.

Helburu horretarako, EHSS egoerari buruzko ikerketa eta ebaluazioa egiteko aldi bereko zikloa jarri du abian EHSSri buruzko 6/2016 Legeak jasotzen dituen aurreikuspenen arabera. Aipatutako zikloak bi urtez behingo txostena (barometroa) eta dagokion bi urtez behingo txostena jasoko duen lau urtez behingo txostena (liburu zuria) biltzen ditu.

¹ EUSKADI. 6/2016 Legea, maiatzaren 12koa, Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialari buruzkoa. *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 94. zk., 2016ko maiatzaren 19koa. Hemendik hartua: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/05/1602096e.pdf>

² EUSKO JAURLARITZA (2018). *Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala sustatzeko estrategia. 2018-2020 Legealdiko Plana*. Hemendik hartua: <https://3euskadi.eus/wp-content/uploads/EPTSSE-plan-de-la-XII-Legislatura.pdf>

Barometroaren eta Liburu Zuriaren helburua da erakundeen ezaugarriei eta egiten dituzten jardueri buruzko aldizkako informazioa eta informazio adierazgarria jasotzea, haien ekarpen sozialaren eta errealitate anitzaren berri ematea, EHSSko kide izatearen sentimendua eta aitorten soziala bultzatzea, baita sustapen eta garapenerako orientazioak ezartzea ere.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroak produktu bizia eta moldagarria du, modu sintetikoan Euskadiko ekimen eta esku-hartze sozialeko sareei eta erakundeei buruzko informazio esanguratsua eskaintzen duena. Bereizgarri gisa, gainera, edizio honek pandemiaren ostean EHSSeko erakundeek eta erabiltzaileek duten egoeraren argazkia eskaintzen du.

Zortzi kapitulutan multzokatuta, txosten honen emaitzak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren ezaugarri nagusiak ematen ditu aditzera, identitateari, jarduerari, sektorea osatzen duten pertsoneri, baliabide ekonomikoari, erabiltzen dituen kudeaketa-tresneri eta sektoreari eusten dioten barne- eta kanpo-harremanei dagokienez. Gainera, datu alderagarrien atal bat dago erakundeek azken 2 urteotan izan duten bilakaera ikusi ahal izateko, eta atal berezi bat COVID-19aren pandemiak izan duen inpaktuari buruz.

EHSSren 2021eko Barometroa egiterik ez genukeen izango galdetegiari erantzun dioten 370³ erakunderen parte-hartze eskuzabalagatik izan ez balitz. Gure eskerrik onenak guztiei.

Fitxa teknikoa

IKERKETAREN UNIBERTSOA

Euskadiko Hirugarren Sektore
sozialeko erakundeak

4.117

LAGINA

370

erakunde hartu dute parte ikerketan

KONFIANTZA ETA ERRORE MAILA

konfiantzaren

%95

eta

%4,86

errore marjina

DATUAK JASOTZEKO TEKNIKAK

onlineko galdetegia

DATUAK JASOTZEKO EGUTEGIA

onlineko landa-lana 2021ko maiatzaren 18a
eta ekainaren 30a bitartean egon zen irekita

OHAR METODOLOGIKOAK

kontsultatu ohar metodologikoen inguruko
dokumentua informazio gehiago izateko


³ Landa-lanean zehar erakundeekin izandako harremanak aukera eman digu pandemiaren hasieratik jarduerarik gabe zeuden baina aurki jarduera berrartzea aurreikusten zuten erakunde batzuk identifikatzeko. Horregatik, ez ditugu jarduerarik gabeko erakundetzat hartu. Nolanahi ere, horietako batzuek ez dute galdetegia bete nahi izan arrazoi horregatik.

⁴ Lagina estatistikoki adierazgarria da Euskadin. Lurralde historikoen arabera datuak tentuz hartu behar dira. Izan ere, Bizkaian errore-marjina +/-% 6,34koa da, Gipuzkoan +/-% 10,11koa eta Araban +/-% 11,39koa. Horrez gain, txostenaren lurralde historikoarenak ez diren beste alderdi batzuekin lotuta, errore-marjina handitu egiten da laginarekin alderatuta, aztertutako kasuen lagina txikitu egiten baita. Hori gertatzen denean, oin-oharrak sartzen dira, datuak arretaz aztertzeko.

1. NORTASUNA

1.1. ZIFRA NAGUSIAK


Kalkuluaren arabera, 4.117 erakunde (2.341 Bizkaian, 1.176 Gipuzkoan eta 600 Araban) osatzen dute Euskadiko hirugarren sektore soziala; hau da, Euskadiko 1.000 biztanleko 1,88 erakundeko tasa⁵. Erakunde horiek, gutxi gorabehera, 39.916 langile dituzte, eta 160.493 boluntarioren partaidetza soziala bideratzen dute. 2020an, 1.712 milioi euroko bolumen ekonomikoa kudeatu zuten, euskal BPGaren % 2,4⁶.



⁵ 2021eko azaroan, 2.193.199 pertsona bizi ziren Euskadin: Bizkaian 1.144.123, Gipuzkoan 718.887 eta Araban 330.189. Iturria: EUSTAT. Biztanleen udal-estatistika (azken eguneraketa 2021eko urrian).

⁶ 2020an, Euskadiko BPGa 71.528.127.000 €-koa izan zen: Bizkaiko BPGa 36.181.562.000 €-koa; Gipuzkoakoa, 24.108.083.000 €-koa; eta Arabakoa, 11.238.482.000 €-koa. Iturria: EUSTAT. Hiru hileroko Kontu Ekonomikoak.


ERAKUNDE AKTIBOAK 2021EAN, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. ABSOLUTUAK, %, BIZTANLERIAREN GAINEKO RATIOA, SOLDATAPEKO LANGILEEN BOLUMENA, BOLUNTARIOEN BOLUMENA ETA BPG-REN GAINEKO RATIOA⁷



1.2. ZER BEREZKO EZAUGARRI DITU EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAK?

EHSSeko 6/21016 Legearen arabera EHSSk har ditzaketen figura juridikoen artean, gehienak elkarreak dira. Erakundeen % 90,3 elkarreak dira⁸, % 5,3 fundazioak eta gainerako % 4,1ek beste figura juridiko bat du.

ERAKUNDEEN BANAKETA, FIGURA JURIDIKOAREN ARABERA (%)



Gutxi gorabehera, erakundeen % 28,8k onura publikoaren deklarazioa dute. Deklarazio horrek gizarteak lan hori aitortzen duela adierazten du, eta berekin dakar erakundearen xedeez interes orokorra sustatzeko joera izatea eta jarduera bazkidegoko pertsonen mesede egitera soilik ez mugatuta egotea.

⁷Horrekin lotuta, gogorarazi beharrekoa da Lurralde historikoen arabera datuak tentuz hartu behar direla. Izan ere, errore-marjina +/- % 6,34koa da, Gipuzkoan +/- % 10,11koa eta Araban +/- % 11,39koa. Bestalde, kudeatutako bolumen ekonomikoa adierazten duen BPGrekiko ehunekoa Lurralde Historiko bakoitzaren BPGrekiko kalkulatu dago eta 2020ko prezio arruntetan. Era berean, erakundeek 1.000 biztanleko duten tasa Lurralde Historiko bakoitzaren biztanleria oinarri hartuta kalkulatu da.

⁸Figura juridikoen arabera erakundeen banaketa unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakunde guztizko) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

Erakundeen % 43,3 pertsona eta/edo familia hartzaileek zuzenean eraturakoak dira, eta horrek adierazten du erakundeen eta jardueraren pertsona eta kolektibo hartzaileen artean lotura estu eta egonkorra dagoela. Hain zuzen ere, 10 kasutik 4tan haiek osatzen dute erakundea.

Entitateen % 98 inguru oinarrizko erakundeak dira, eta bigarren edo hirugarren mailako sareek edo entitateek sektoreko erakunde guztien % 2,1 osatzen dute, gutxi gorabehera⁹.

Kontsultatutako sareen erdia 14 erakunde baino gutxiago biltzen duten elkarteak dira. Beste erdia, aldiz, 14 erakunde edo gehiagok osatuta daude. Batez beste, sareetako bakoitzak 28 erakunde inguru biltzen ditu.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



⁹Erakundeen banaketa, oinarrizko erakunde diren edo sareak diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

2. JARDUERA


2.1. ZER ARLOTAN EGITEN DUTE LAN?

JARDUERA ARLOEN DEFINIZIOA ETA ERAKUNDEEN BANAKETA, JARDUERA ARLO NAGUSIAREN ARABERA. (%)



Entitate gehien biltzen dituzten jarduera arloak sozial-transbertsala eta gizarte-zerbitzuak dira. Erakundeen % 37,1en jarduera nagusia adinekoen, etorkinen, emakumeen eta abarren eskubideen sustapenarekin lotuta dago. Erakundeen beste % 22,5ek gizarte-zerbitzuak ematearekin lotutako jardueraren bat dute¹⁰.

Jarduera nagusia ez bada ere, erakundeen % 58,2k adierazten dutenez zeharkako gizarte-esparruetan garatzen dute jarduera neurri batean, eta entitateen erdiak gizarte-zerbitzuen esparruan lan egiten duela (53,4%) esaten du. Esparru nagusiez gain, % 42,9 hezkuntzaren eta aisialdiaren inguruan ari dira lanean, eta % 35,7k osasunaren arloan garatzen du lana neurri batean.




2.2. ZENBAT DENBORA DARAMATE LANEAN?

EHSSean ibilbide desberdinak dituzten erakundeak daude. Sektoreko erakundeek, % 35,5ek, 20 urte edo gehiagoko ibilbidea du (% 1,1 inguruk 50 urte edo gehiagoko ibilbidea du). Erakunderik gazteenak, 5 urteko ibilbidea baino laburragoa dutenak, % 17,3 dira¹¹.

¹⁰ Jarduera arloaren arabera erakundeen banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu dugu oinarri, ez lagina.


¹¹ Eraketa-urtearen arabera erakundeen banaketa kalkulatzeko, unibertsoa (EHSSko erakunde guztiak) hartu da oinarri, ez lagina. Unibertsoa erakundeen % 8,7ren eraketa-data ezin izan da egiaztatatu.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERAKETA URTEAREN ARABERA. (%)



2.3. NOIZ ARTE HEDATZEN DA HAREN EKINTZA?


Erakundeen % 88ren jarduera ez da Euskaditik ateratzen, eta % 12k, aldiz, eremu handiagoan jarduten du. Erakundeen % 38,7k jarduera kokaleku duen lurralde historikoan bideratzen du batez ere, eta beste % 28,3k lurralde batean baino gehiagoan egiten du lan (Euskadi). Euskadin jarduten duten gainerako erakundeei dagokienez, % 21 zehazki, tokiko eremuan (eskualdean, udalerrian edo eremu txikiagoan) jarduten duten erakundeak dira.



2.4. ZER KONTINGENTZIA ARTATZEN DITUZTE?

Euskadiko hirugarren sektore sozialeko 10 erakundetik 2k bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzte; % 14,3k, desgaitasuna duten pertsonak; % 7,8k, babesgabetasun-egoeran daudenak; eta azkenik, % 2,9k, mendekotasun-egoeran daudenak edo mendekotasunean egoteko arriskuan daudenak.

Gainerako erakundeen (% 55,7) jardueraren hartzaile nagusiak beste ahultasun- edo desberdintasun-egoera batzuei aurre egiten dieten pertsonak dira.




2.5. ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA DAUDE?

HSSko erakundeek askotariko hartzaileak dituzte, haien artean nabarmentzekoak dira :


- Haurrak, nerabeak eta haien familiak (kontsultatutako erakundeen % 19,7ren kolektibo nagusia da).
- Adinekoak dira erakundeen% 14,76rentzat.
- Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiartekoak (kontsultatutako erakundeen % 11,9ren kolektibo nagusia da).
- Emakumeak % 10,7rentzat.

ERAKUNDEEN BANAKETA, EKINTZA ZER KOLEKTIBO NAGUSIRI BIDERATZEN DIREN KONTUAN HARTUTA. (%)



Kolektibo nagusia aintzat hartzeaz gain, erakundeak berak arta ditzakeen guztiak ere aintzat hartzen baditugu, erakundeen gutxi gorabehera erdiek emakumeak, gazteak eta biztanleria, oro har, artatzen dutela erreparatu dugu. Guztizkoaren % 43,3k egiten du lan hurrekin eta nerabeekin. Era berean, oso ugariak dira adinekoekin (% 35), etorkinekin (% 33,4) edo pobrezia-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonekin (% 31,1) lan egiten duten erakundeak.


KOLEKTIBO BAKOITZARI ZUZENTZEN ZAIZKION ERAKUNDEAK. (%)



2.6. ZER JARDUERA GARATZEN DUTE?


EHSSko erakunde gehienek (% 83,5), zerbitzuak eskaintzeaz gain, sentsibilizazioarekin eta eskubideen defentsarekin lotutako beste funtzio sozial batzuk garatzen dituzte. Zerbitzuen hornikuntzaren bidez, erakundeek behar sozialei erantzuten diete eta baliabideak gerturatzten dizkiete beharrak dituzten herritarrei, baliabide horiek eskuratzea erraztuz.

ERAKUNDEEN BANAKETA, FUNTZIOEN ARABERA. (%)



Zehazki, %89,1ek zerbitzuren bat ematen dute (sarritan beste funtzio batzuk ere garatzen dituztela alde batera utzita), eta gainerako %10,9k intzidentziarekin, sentsibilizazioarekin, ikerketarekin eta besterekin lotutako jarduerak soilik egiten dituzte.


ERAKUNDEEN BANAKETA, ZERBITZUAK HORNITZEN DITUZTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



Zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeek 346 erabiltzaile artatzen dituzte batez beste, nahiz eta zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeen erdiak 225 erabiltzaile baino gutxiago dituen urtean¹².

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeek %28,5ek erantzukizun publikoko zerbitzu-zorroetan aintzat hartutako zerbitzuak ematen dituzte¹³ (gainera, gehiengoak zorro horietan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ere ematen dituzte). Bestalde, beste %71,5ek erantzukizun publikoko zorroetan aintzat hartu gabeko zerbitzuak ematen dituzte.

ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN BANAKETA, ERANTZUKIZUN PUBLIKOKO ZERBITZURIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)




Sektoreko erakundeek ematen dituzten zerbitzuen artean, hauek dira azpimarragarrienak: Informazio- eta orientazio-zerbitzuak (%19,7ren jarduera nagusia da), aisialdiko zerbitzuak (%18,1), gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeari (%11,2) prestakuntza eta hezkuntza (%10,9), komunitatearen garapena (%6,6) eta esku-hartze psikosoziala (%6,5).

¹² Erabiltzaileen estatistikak kalkulatzeko, zerbitzu motaren bat hornitzen duten erakundeak hartu ditugu kontuan eta erabiltzaileen artean 30.000 pertsona edo gehiago dituzten erakundeak baztertu egin ditugu, erakunde desitxuratzaitzat hartu ditugulako. Azken erakunde horien (hemendik aurrera, erakunde "outlinerrak") balioek nabarmen handitzen dute laginaren bariantza. Trimedia estatistikoa erabiltzea hautatu dugu sendoagoa delako (joera nagusiaren indizea da, eta aldakortasun maila altua duen aldagaiaren estimazioak egiteko erabilgarriena dela egiaztatu da).

¹³ Zerbitzu bat erantzukizun publikokoa dela esaten da instituzio publikoek zerbitzu hori hartzaileentzat erabilgarria eta irisgarria izatea bermatu behar dutenean; araudietan eta instituzio horien eskumenekoak diren prestazioen eta zerbitzuen zorro edo katalogoetan arautzen dira erantzukizun publikoko zerbitzuak.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroa

ERAKUNDEEN BANAKETA, EMATEN DUTEN ZERBITZU NAGUSIAREN ARABERA. (%)




Hornitzen duten zerbitzu nagusiaz gain, kontsultatutako erakundeen erdiak baino gehiagok aisialdiko zerbitzuak hornitzen ditu (% 51,8) edo prestakuntza eta hezkuntzakoak (% 51,3). Ia 10 erakundetik 4k informazio- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzen dituzte (% 39,9) eta ehuneko oso antzeko batek laguntza soziala (% 37,5), esku-hartze sozio-hezitzailea (% 37,2), aholkularitza edo orientazioa (% 36,5) eta esku-hartze psikosoziala (% 34,5) eskaintzen dute.

ZERBITZUETAKO BAKOITZA EMATEN DUTEN ERAKUNDEAK (%)



Intzidentzia sozialarekin lotutako erakundeek garatzen dituzten funtzio sozialen artean, nagusienak sentsibilizazioa (erakundeen %55,8rentzat funtsezkoa da bere beste funtzio sozialen barruan) eta boluntariotzaren sustapena, elkar laguntza, parte-hartze soziala eta asoziazionismoa dira (% 18,9rentzat intzidentzia-jarduera nagusia da).

ERAKUNDEEN BANAKETA, EGINDAKO GIZARTE-FUNTZIOAREN ARABERA. (%)



Jarduera nagusia edozein izanik ere, entitateen gehiengo zabalak sentsibilizazio-ekintzak egiten ditu (% 77,3). 10 erakundetik 6tan boluntariotzaren, elkarrekiko laguntzaren, parte-hartze sozialaren eta asoziazionismoaren sustapena egiten dute. Eta erakundeek erdiak inguruk eskubideak salatu eta sustatzen ditu (% 49,3).

BESTE FUNTZIO SOZIALETAKO BAKOITZA EGITEN DUTEN ERAKUNDEAK. (%)



2.7. GIZARTERATZEKO ENPRESAK ETA ENPLEGUARAKO ZENTRO BEREZIAK

EHSSko erakunde batzuk beraien jarduerarengatik nabarmentzen dira, hartzaileen profil jakin batzuk lan-munduan txertatzeko eta integratzea bilatu eta ahalbidetzen dutelako. Gizarteratzeko enpresen eta enplegurako zentro berezien kasuan, hartzaileak gizarte-desabantailan edo -bazterkerian dauden pertsonak¹⁴ eta desgaitasuna duten pertsonak¹⁵ dira, bakoitza arautzen duen araudiaren arabera.

Erakundeen % 1,1 lan-munduratzeko enpresak dira eta beste % 3,0 lan-munduratzeko enpresen sustatzaileak¹⁶. Horrenbestez, bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak lan-merkatuan txertatzea dute helburu. Gizarteratzeko enpresek, batez beste, gizarteratze-prozesuan dauden 17 pertsona izaten dituzte atxikita.

Kontsultatutako erakundeen % 1 inguruk enplegu-zentro berezia du. Zentro horiek desgaitasuna duten pertsonen laneratzea errazten dute. Enplegurako Zentro Bereziek 47 pertsona izaten dituzte atxikita batez beste¹⁷.

ERAKUNDEAK, BEREZKO EZAUGARRI BATZUEN ARABERA (%)



¹⁴Gizarteratzeko enpresaren definizioa: ondasunak edo zerbitzuak ekoizten dituzten egiturak dira, eta gizarte-desabantailan edo -bazterkerian dauden kolektiboak lan-merkatuara txertatzea eta ikasketa-prozesu egokiaren bitartez gizarteratzeko proiektu pertsonala gauza dezaten dute xede. Prozesu horrek kontuan hartzen ditu gaitasun sozialak, lanekoak, oinarriko prestakuntza, laneko kualifikazioa eta merkatuko ezagutzak lortzea, enplegarritasunerako baldintzak hobetu ahal izateko (azaroaren 11ko 182/2008 DEKRETUA, gizarteratzeko enpresen kalifikazioa arautu eta horietara sartu eta erregistratzeko prozedura ezartzen duena). Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2008/11/0806515a.pdf>

¹⁵Enplegu Zentro Berezien definizioa: desgaitasuna duten langileei lan emankorra eta ordaindua egiteko aukera ematea helburu duten enpresak, haien ezaugarri pertsonalei egokitutako lana, eta lan-merkatu arruntean barneratzea erraztuko diena. Bere ezaugarriak abenduaren 4ko 2273/1985 Errege Dekretuak arautzen ditu, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikuluan zehaztutako Enplegurako Zentro Berezien araudia onartzen duenak. Hemen eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/rd/1985/12/04/2273/dof/spa/pdf>.

¹⁶Erakundeen banaketa, gizarte-enpresak diren edo ez diren kontuan hartuta, unibertsoa (Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen guztizkoa) oinarri hartuta kalkulatu da, ez lagina oinarri hartuta.

¹⁷ Enplegu-zentro berezietara atxikitako pertsonen estatistikak kalkulatzeko, atxikita 250 pertsona baino gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.

3. PERTSONAK

3.1. LANTALDEAK: BOLUNTARIOAK ETA ORDAINPEKO LANGILEAK

Erakundeen % 56,5ek soldatapeko langileak dituzte lantaldeetan; gainerakoetan, berriz, % 43,5 borondatezko pertsonekin osatuta daude oso-osorik.


Lantaldeetan boluntarioek duten presentziari dagokionez % 89,1etan boluntarioen presentzia esanguratsua da, erakundea osatzen dutenen erdia edo gehiago baitira. Egiaz, erakundeen % 43,5 oso-osorik boluntarioz osatuta dago.

Horren antzera, ohikoena da ordainpeko langileak lantaldea osatzen duten pertsonen laurdena baino gutxiago izatea. Ordainpeko langileak erakundeen % 14,4ean soilik dira gehiengo.


LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEAN BOLUNTARIOEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)




ERAKUNDEEN BANAKETA, LANTALDEETAN ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)




Ohikoena da erakunde batean boluntarioen bolumena 10 eta 50 pertsona artean izatea (% 46,6). Ohikoena 6 boluntario inguru izatea den arren, batez bestean 39 boluntario izaten dira¹⁸, eta horietatik % 66,5 emakumeak dira.

¹⁸ Boluntarioen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 boluntario edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, erakunde "outliertzat" jotzeagatik.



Erakundeek ordaindutako langileak dituztenean ohikoena da (10 erakundetik 7tan) ordaindutako 10 pertsona baino gehiago ez izatea, eta kasuen % 30etan 3 pertsona baino gutxiagok jasotzen dute ordainsaria. Erakundeen % 9,7k ordainpeko 50 langile baino gehiago dituzte.

Ohikoena ordaindutako pertsona bat izatea den arren, batez bestean 15 ordaindutako pertsona¹⁹ izaten dira, eta horien % 72,9 emakumeak dira.



Gutxi gorabehera, kalkulatzen da erakundeen % 15,3 inguruk ordainpeko langileen artean desgaitasuna duten pertsonak dituztela (enplegu-zentro bereziak kontuan izan gabe)²⁰.

DESGAITASUN ZIURTAGIRIA DUTEN ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK. (%)



Bestalde, erakundeen % 22,8 inguruk ordainpeko langileen artean espainiar nazionalitatea ez duten pertsonak dituzte (gizarteratze-prozesuan daudenen datuak aintzat hartu gabe)²¹.

ESPAINIARRA EZ DEN NAZIONALITATEKO ORDAINPEKO LANGILEAK DITUZTEN ERAKUNDEAK (%)



¹⁹ Ordainpeko langileen estatistikak kalkulatzeko, ordainpeko langileak dituzten erakundeak hartu ditugu aintzat, eta baztertu egin ditugu ordainpeko 250 langile edo gehiago dituzten erakundeak, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

²⁰ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,4ko errore-marjina baitu.

²¹ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,5eko errore-marjina baitu.

Ordainpeko langileen % 71,3k lanaldi osoko kontratua du, % 28,8k, berriz, lanaldi partzialeko kontratua du. 10 emakumetik ia 8k kontratu partzialak dituzte.

ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, LANALDI MOTAREN ETA LANALDI PARTZIALEKO ORDAINPEKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO OSAERAREN ARABERA. (%)



Kontratu motari dagokionez, ordainpeko langileen % 71,1ek kontratu mugagabea edo finkoa dute, eta gainerakoek beste kontratu motaren bat dute (aldi baterakoa, aldizkako kontratu finkoa eta abar).

ORDAINPEKO LANGILEEN BANAKETA, KONTRATU MOTAREN ARABERA. (%)



Langileen % 12 inguruk ordaindutako ardura-posturen bat edo ardura motaren bat hartzen dute beren gain erakundean. Gizonezkoen artean (% 13,3) pixka bat handiagoa da tasa hori emakumezkoen artean (% 11,3) baino.

ARDURA POSTU BAT DUTEN ORDAINPEKO LANGILEAK, SEXUAREN ARABERA. (%)

Erantzukizun postua - ORDAINPEKO LANGILEAK

%12 Erakundean kargu edo erantzukizun ordaindutako bat beren gain hartu duten pertsonak



%13,3

Erantzukizuna duten gizonezkoak



%11,3

Erantzukizuna duten emakumezkoak

3.2. BAZKIDEAK ETA EMAILEAK

EHSSko elkarteek, batez beste, 354 bazkide dituzte, nahiz eta kontuan izan behar den elkartearen erdia, gutxi gorabehera, 113 bazkidez edo gutxiagoz osatuta daudela²². Gutxi gorabehera, 10 bazkidetik 6 emakumezkoak dira, eta 4 gizonezkoak²³.

BAZKIDEEN OSAERA, SEXUAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



²² Bazkideen estatistikak kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira kontuan (EHSSko erakundeen % 90 dira) eta 5.000 bazkide edo gehiago dituzten erakundeak baztertu dira, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.

²³ Bazkideen sexuaren araberako banakapena kalkulatzeko, elkartearen figura juridikoa duten erakundeak hartu dira aintzat.

Kalkuluen arabera, sektoreko erakundeen %46,6 inguruk emaileak ditu, batez ere, ohiko emaileak (kasuen %73,7). Batez bestean, erakunde bakoitzak ohikotasunez diru-ekarpenak egiten dituzten 80 pertsona ditu, baina erakundeen erdiek ez dute 32 emaile erregular baino gehiago²⁴.

EMAILEEN OSAERA, MOTAREN ARABERA. % ETA BATEZBESTEKOA



²⁴ Ohiko emaileen estatistikak kalkulatzeko, 1.000 emaile edo gehiago dituzten erakundeak baztertu ditugu, "outlier" erakundetzat jo ditugulako.


4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

4.1. ZER BALIABIDE EKONOMIKO DITUZTE?

EHSSko erakundeen % 80,1 erakunde txikiak edo ertainak dira, eta 300.000 € baino gutxiagoko diru-sarrerak dituzte. Egiaz, erakundeen erdiek kudeatzen duten bolumen ekonomikoa 61.769 € baino gutxiagokoa da.

Oso diru kopuru desberdinak esku artean dituzten erakundeak daude. Erakundeen % 7,5ek milioi eta erdi euro baino gehiagoko aurrekontuak kudeatzen dituzte, eta sektoreko entitateen % 29,2ren diru-sarrerak 12.000 €-tik beherakoak dira.

ERAKUNDEEN BANAKETA, 2020KO DIRU SARREREN ARABERA. (%)




Erakundeen erdia ingururen ekonomia-emaiza 2020an kontuak orekatuta izatea izan zen. Erakundeen % 23,6k superabita izan zuen, eta beste % 30ek, defizita.

ERAKUNDEEN BANAKETA, 2020KO EKITALDIKO EMAITZAREN ARABERA. (%)

2020ko EMAITZAK


Zein izan zen azken ekitaldi ekonomikoko emaitza?



4.2. NONDIK DATOR FINANTZIAZIOA?

Erakundeen diru-sarreraren % 54,1 finantziazio-iturri publikoetatik datoz, eta % 45,9 finantziazio-iturri pribatuetatik. Finantziazio publikoaren barruan, dirulaguntza publikoak dira nagusi, erakundeen diru-sarrera guztien % 37,7 baita batez beste. Finantziazio pribatuan, bazkideen edo afiliatuen kuotak nabarmentzen dira. Batez beste, diru-sarreraren guztizkoaren % 17,6 izan ohi dira.


DIRU SARREREN ITURRI BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, SEKTOREKO FINANTZIAZIO OSOAREKIKO. (%)



4.3. ZERTARA BIDERATZEN DITUZTE BALIABIDE EKONOMIKOAK?


Gastuaren xedearen arabera, erakundeek gastuaren % 82,7 jardueraren edo emandako zerbitzuen gastua ordaintzeko erabiltzen dute, eta zeharkako kudeaketa-gastuak batez bestean guztizko gastuaren % 13,2 biltzen dute.

GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, XEDEAREN ARABERA. (%)




Gastuaren izaeraren arabera, erakundeek langileengana bideratzen dute beraien gastuaren % 41,7. Xede sozialera edo hornikuntzara bideratutako erosketak edo kontsumoak dira gastuaren % 27,1.

GASTU MOTA BAKOITZAREN PISU ERLATIBOA, IZAERAREN ARABERA. (%)



3 erakundetik 1 inguruk kanpoko kontularitzako auditoria egin du azken hiru urteotan.

ERAKUNDEEN BANAKETA, KONTUEN AUDITORETZA EGITEN DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA



5. KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

5.1. ZER KUDEAKETA TRESNA ERABILTZEN DITUZTE?


Erakundeek askotariko kudeaketa-tresnak dituzte (ebaluazio-sistemak, berdintasun-planak, kode etikoak eta abar) entitateek ongi funtziona dezaten. Batzuetan, nahiz eta ohikoena ez izan, tresna formalizatuak dira. Beste batzuetan, aldiz, aldian behingo ekintzak izaten dira. Ebaluazio-sistemak edo Berdintasun Planak dira estandarizatuenetako batzuk.

Erakundeen % 27,7k kode etikoa du, eta entitateen beste % 43,7k kode horrekin zerikusia duten ekintzak garatzen dituzte, idatziz jasotako koderik izan ez arren. Erakundeen % 39,7k proiektuen edo jardueren emaitzak edo inpaktua ebaluatzeko sistema formalizatua dute, eta beste % 38,9k horrekin lotutako ekintzak garatzen ditu.

10 erakundetatik 7k gizonen eta emakumeen arteko berdintasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 31,1ek Berdintasun Plana dute idatziz eta formalizatuta. Entitateen % 46,2k ez baztertzearrekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 33,7k alderdi horri lotutako Protokoloa bat dute. Jazarpen-protokoloa idatziz jasota eta formalizatuta duten erakundeak % 18,7 dira eta beste % 22,3k horrekin lotutako ekintzak egiten ditu.

Entitateen % 16,3k gardentasunarekin lotutako ekintzak garatzen dituzte, eta % 2,8k Gardentasun Plan bat dute.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ZENBAIT KUDEAKETA TRESNA ZENBATERAINO BARNERATUTA DITUZTEN KONTUAN HARTUTA. (%)



5.2. ZER BESTE KUDEAKETA PRAKTIKA BARNERATU DITUZTE?

Erakundeen % 14,2k kalitate-ziurtagiriren bat dute. Horietatik % 68,6k ziurtagiri bat du; % 23,9k, bi, eta %7,5ek, 3. Ohikoenak ISO ziurtagiriak dira, eta, gutxiago, Euskaliten edo Plena Inclusionen ziurtagiriak.

ERAKUNDEEN BANAKETA, KALITATE ZIURTAGIRIRIK DUTEN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)




ERAKUNDEEN BANAKETA, SOLDATARIK BAXUENAREN ETA ALTUENAREN ARTEKO ALDEAREN ARABERA. (%)



Soldata baxuenaren eta altuenaren arteko distantzia

Erakundeen % 66,1ean, soldatarik baxuenaren eta altuenaren arteko aldea, gehienez, heren batekoa izaten da; hau da, erakundeetan soldata txikiena duenak soldata handiena duenaren % 33 kobratzen du gutxienez²⁵.

ERAKUNDEEN BANAKETA, ERABAKIAK HARTZEN DITUZTEN ERAKUNDEKO ORGANOETAN EDO BATZORDEETAN BOLUNTARIOEK ETA ORDAINPEKO LANGILEEK DUTEN PISUAREN ARABERA. (%)



Erakundeen % 87,2tan, boluntarioek erabakiak hartzen dituen erakundeeko organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute. Erakundeen % 15,1etan boluntarioen erdiak edo gehiagok hartzen dute parte, eta % 28,9tan, denek²⁶.

Ordaindutako langileak dituzten erakundeen % 33,4tan, langileen erdiak edo gehiagok erabakiak hartzen dituen erakundeeko organoren batean edo batzorderen batean parte hartzen dute. Kasuen % 24,1ean, langile guztiak hartzen dute parte batzorde edo organo horietan²⁷.

²⁵Datu hori kalkulatzeko ordainpeko langile bat baino gehiago dituzten erakundeak hartu ditugu kontuan. Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta laginak +/- % 8,7ko errore-marjina inplikatzeko baitu.

²⁶ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,0ko errore-marjina baitu.

²⁷ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdera horren erantzun kopurua bereziki txikia izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/- % 6,1eko errore-marjina baitu.


5.3. ZER INFORMAZIO HELARAZTEN DIETE INTERES TALDEEI?

Erakundeen % 88,9 inguruk entitatearen urteko memoriari buruzko informazio helarazi ohi diete aldizka interes-taldeei eta % 85,4k urteko kontuen egoeraren berri ematen diete.

Gainera, gobernu-organoen osaerari buruzko informazioa interes taldeetara normalean edo modu erregularrean helarazten dieten erakundeak % 81,8 dira, eta % 76,6k erakundearen xedeari eta balioei buruzko informazioa helarazten du.

Neurri txikiagoan bada ere, erakundeen ehuneko esanguratsu batek jakinarazten die interes-taldeei helburuak zenbateraino bete dituzten (% 68,3) eta jarduketek zer inpaktu izan duten (% 64,2). Erakundeek entitateko pertsoneri buruzko informazioa igortzea ez da horren ohikoa (% 47,4k egiten du).

ERAKUNDEEN BANAKETA, INTERES TALDEEI ASKOTARIKO INFORMAZIOA HELARAZI OHI DIETEN KONTUAN HARTUTA. (%)



6. HARREMANAK


6.1. NOLAKOA DA BESTE ERAGILE BATZUEKIKO HARREMANA?

Herri-administrazioiko organismo guztien artean, erakundeek batez ere udalekin dute harreman estua. Erakundeen % 78,2ren esanetan, harreman dezente edo harreman handia dute udal mailako administrazioarekin; % 58,7k, foru-aldundiekin; eta % 47,8k, Eusko Jaurlaritzarekin.

Halaber, gizarte-mugimenduekin ere loturak dituzte (kontsultatutako entitateen % 65,3k haiekin harreman dezente edo harreman handia dutela diote) eta unibertsitateekin (% 39) ere bai.

Beste eragile batzuekiko harremana nabarmen txikiagoa da. Zehazki, sektoreko erakundeen % 30,6ren esanetan, banku-fundazioak harreman edo lankidetzan nahiko estua dute; % 29,3k beste sektore batzuetako enprekin; % 23,6k Elizarekin; % 19,4k alderdi politikoekin; eta % 14,2k sindikatuarekin eta enpresa-elkartekin.

ERAGILE SOZIAL ANITZEKIN HARREMAN EDO ELKARLAN DEZENTE EDO HANDIA DUTEN ERAKUNDEEN BANAKETA. (%)




6.2. NOLAKOAK DIRA EHSS-KO HARREMANAK?

10 erakundetik 6 baino gehiago bigarren mailako erakunde baten edo ekimen baten kide da (sareak, federazioak, taldeak, plataformak...), eta horrek adierazten du antzeko erakundeen artean harremana dagoela, hausnarketarako eta elkarri informazioa emateko espazioak dituztela.

Batez beste, erakunde bakoitza halako hiru sarereren parte da, nahiz eta ohikoena bigarren mailako erakunde bakar bateko kidea izatea den.

ERAKUNDEEN BANAKETA, SAREREN BATEN PARTE DIREN EDO EZ KONTUAN HARTUTA. (%)



6.3. SEKTOREKO ERRONKA BATZUK

Erakundeek datozen urteetarako identifikatzen dituzten sektoreko erronka nagusietan eragina dute aldaketa orokorrek (sozialek, ekonomikoek, politikoek...) eta Covid-19aren pandemiak gizartean eta sektorean izan dituen inpaktuak.

Erakundeen jasangarritasun politiko zein soziala funtsezko erronka da oraindik ere. Dimentsio ekonomikoan, finantzaketa-iturrien dibertsifikazioa eta egonkortasun ekonomikoa aipatzen dira oraindik, erakundeen jardueraren bideragarritasuna eta jardueraren garapena bermatzeko. Dimentsio sozialean, apustua parte hartzeko espazioak eskaintzen jarraitzea da, erakundeen oinarri soziala finkatzeko. Horretarako, arreta berezia jartzen da boluntarioen zaintzan, pandemiak eragin handia izan baitu haien parte-hartzean.

Halaber, bai barneko, bai kanpoko erlazioak indartzeko apustua egin da. Lehenengoei dagokienez, EHSS egituratzeko prozesuekin aurrera jarraitzea funtsezko mugarrria da, alde batetik, sareen posizioa finkatzeko eta sare horietan geroz eta erakunde gehiago egituratzeko. Halaber, erakundeen arteko lankidetzarako eta kooperaziorako espazioak sortzeko apustua egin da, ikaskuntzak partekatuzko, aliantzak sortzeko eta are lankidetzeta-proiektuak ekiteko ere.

Kanpoko harremanei dagokienez, aliantzak sortzeko beste eragile sozialekin izandako erlazio-ereduan aurrera egitea erronka garrantzitsua da oraindik ere. Horretarako, badirudi funtsezkoa

dela EHSSren posizio soziala finkatzea, eragile sozial eta funtsezko solaskide gisa, bai administrazio publikoarekin, bai beste eragile batzuekin.

Halaber, nabarmentzekoa da posizio horretan aurrera egiten jarraitzea, jardueraren emaitzak, balio erantsia eta sortzen duen inpaktua ikusarazteko, batez ere kohesio sozialaren eta pertsonarik zaurgarrienen eskubideen babesaren terminoetan.

Aldatuz doan gizarte-errealitatearen aurrean, badirudi funtsezkoa dela sortzen doazen gizarte-behar berriei erantzunak bilatzeko aurrera egiten jarraitzea, horien artean, pandemiak mahai gainean jarri dituenentzat (horri buruzko informazio gehiago dago hurrengo atalean) eta eraldaketa sozialekin eta demografikoarekin edo erronka demografikoarekin zerikusia dutenentzat (zahartzea, emantzipazioa, jaiotza, etab.).

Ebidentzian geratu da eraldaketa digitala eta berrikuntza soziala erakundeak indartzeko ardatz garrantzitsuak direla.

Alde horretatik, eraldaketa digitalaren esparruan berrikuntzarako sareak eta digitalizazio-prozesuak sortzea erronka garrantzitsuak dira.

Halaber, erakundearen beste alderdi batzuk (lanpostuak, egonkortasuna, etab.) eta EHSSren ezaugarriak eta jardueraren balio berdingabea bermatzeko garrantzia identifikatu dugu, bai zerbitzuen hornikuntzaren arloan, bai intzidentzia sozialaren, bai parte-hartzearen eta ezagutzaren sustapenaren, bai eskubideen gauzatze eraginkorraren arloetan.

7. DATUEN ALDERAKETA, 2019-2021

Jarraian, aldiaren ikuspegia eskaintzeko, tauletan 2014, 2019 eta 2021eko hainbat adierazleren datuak jaso ditugu, EHSSn izan diren aldaketak eta joerak ikusi ahal izateko. Tauletan, 2019an eta 2021ean jasotako datuen arteko desberdintasunak aipatu ditugu batez ere.

Azken urteotan, EHSSk aldaketa esanguratsuak izan ditu. Ezin da ukatu Covid-19aren pandemiaren eragina ikusgarria dela erakundeen datu nagusietan, nahiz eta datozen urteetan inpaktua agerikoagoa izango dela aurreikusten dugun.

2019 eta 2021 artean, EHSSk berritzen jarraitu du, azken bi urteotan 290 erakunde berri sartu baitira. Hala, agerian geratu da Euskadiko gizarteak duen ehundura soziala garrantzitsua dela eta handitzen ari dela. Halaber, nabarmentzekoa da 115 erakunde inguruk baja eman dutela edo jarduerarik ez dutela identifikatu dugula. Datu horien arabera, 2019an baino 179 erakunde gehiago daude eta 1.000 biztanleko erakundeen tasa apur bat altuagoa da.

Kalkulatutako zifra handiek ere erakusten dute EHSSko ordainpeko pertsonen eta boluntarioen bolumen osoa igo egin dela. Bestalde, EHSSren bolumen ekonomikoa apur bat jaitsi den arren 2019tik pandemiaren inpaktua agerian utziz, apur bat igo da BPGri egindako ekarpena.

Pandemiaren inpaktua ere islatzen da erakundeen jardueran. Hala, aisialdiko zerbitzuak hornitzen dituzten erakundeen edo salaketak egiten dituztenen ehunekoa jaitsi egin da.

Gainera, EHSSn finkatzen ari den feminizaziorako joera aipatu beharko genuke. Azken urteotan igo egin da emakumeen ehunekoa, bai boluntarioen artean, bai ordainpeko pertsonen artean.

Azkenik, denboraren ikuspegi zabalagoarekin, ikus daiteke lurralde historikoen artean gehiago hurbiltzen direla azkeneko datuetan, batez ere zifra handietan, eta erakusten dute desberdintasunak murrizteko joera dagoela. Arreta berezia jarri behar zaio horri datozen diagnostikoetan.

NORTASUNA ETA KOPURU NAGUSIAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
Erakunde kopurua	3.500	3.938	4.117	▲ +179
Erakunde kopurua 1.000 biztanleko	1,6	1,8	1,88	▲ +0,08
Boluntarioak	125.203	158.599	160.493	▲ +1.894
Ordainpeko langileak	35.907	38.525	39.916	▲ +1.391
Kudeatutako bolumen ekonomikoaren %, erreferentziako lurraldearen BPGarekiko	2,2	2,3	2,4	▲ +0,1
Sektoreko erakundeek esku artean ibilitako bolumen ekonomikoa (milioi euro)	1.451	1.736	1.712	▼ -24
Pertsona eta familia hartzaileek zuzenean eraturako erakundeen %	49,3	47,6	43,3	▼ -4,3
Onura publikoaren deklarazioa duten erakundeen %	27	29,1	28,8	▼ -0,3
Elkarteen %, sektoreko erakundeen guztizkoarekiko	89,6	89,9	90,3	▲ +0,4
Gizarteratze-entresak sustatzen dituzten erakundeen %	-	3,2	3,0	▼ -0,2
Bigarren edo hirugarren mailako erakundeen (sareak) kopurua	85	87	87	=

JARDUERA

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
Arlo sozial-transbertsaleko (edo zibikoko) erakundeen %	33,7	36,5	37,1	▲ +0,6
Gizarte-zerbitzuen arloko erakundeen %	25,3	23,3	22,5	▼ -0,8
Ibilbide zabaleko (20 urte baino gehiagokoa) erakundeen %	42,1	33,8	35,5	▲ +1,7
Erakunde gazteen (5 urte baino gutxiagoko ibilbidea) %	13,4	20	17,3	▼ -2,7
Autonomia-erkidegoaren esparrua gaituzten duten (estatukoa edo nazioartekoa) erakundeen %	15,2	15,5	12,0	▼ -3,5
Lurraldean (Euskadin eta lurralde historikoetan) lan egiten duten erakundeen %	58,1	63,4	67	▲ +3,6
Tokiko mailan (eskualdea, udalerrria edo esparru txikiagokoa) lan egiten duten erakundeen %	26,7	21,1	21,0	▼ -0,1
Jarduera emakumeei (neurri batean gutxienez) zuzentzen dieten erakundeen %	47,6	49,3	49,7	▲ +0,4
Zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	93,4	85,8	89,1	▲ +3,3
Zerbitzuak ematea ez den beste jardueraren batzuk (beste funtzio sozial batzuk) egiten dituzten erakundeen %	75,1	92,5	96,4	▲ +3,9
Aisialdiko zerbitzuak ematen dituzten erakundeen %	55	62,2	51,8	▼ -10,4
Salaketa-jarduerak egiten dituzten erakundeen %	45,1	57,9	49,3	▼ -8,6

PERTSONAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektorre sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektorre sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
Emaileak (ohikoak edo aldizkakoak) dituzten erakundeen %	-	44,1	46,6	▲ +2,5
Batez ere boluntarioz osatutako (langileen % 50 edo gehiago) erakundeen %	87	87,9	89,1	▲ +1,2
Oso-osorik boluntarioz osatutako erakundeen %	46	42,8	43,5	▲ +0,7
Ordainpeko langileak dituzten erakundeen % (boluntarioak eta ordainpeko langileak dituzte)	54	57,2	56,5	▼ -0,7
Kontratatutako 50 pertsona baino gehiago dituzten erakundeen % (ordainpeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	10	9,4	9,7	▲ +0,3
Kontratatutako 3 pertsona baino gutxiago dituzten erakundeen % (ordainpeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	38	35,7	30	▼ -5,7
Gehienez 10 ordainpeko langile dituzten erakunde txikien eta ertainen % (ordainpeko langileak dituzten erakundeen guztizkoarekiko)	71,1	71,7	70,7	▼ -1,0
Emakumeen batez besteko % boluntarioen artean	56,5	59,5	66,5	▲ +7,0
Emakumeen batez besteko % ordainpeko langileen artean	68,2	70,5	72,9	▲ +2,4

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektorre Sozialeko Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektorre sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektorre sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
1 milioi eta erdi euro baino gehiago kudeatzen dituzten erakundeen %	9	7,6	7,5	▼ -0,1
12.000 euro edo gutxiago kudeatzen dituzten erakundeen %	32	31,7	29,2	▼ -2,5
Emaizta ekonomikoa superabita izan duten erakundeen %	-	26,9	23,6	▼ -3,3
Sektoreko finantziario publikoaren batez besteko %	55,5	53,6	54,1	▼ -1,5
Hitzarmen eta kontratu publiko bidezko finantziario publikoaren batez besteko %, sektorearen finantziario osoarekiko	17,9	16,3	15,5	▼ -0,8
Sektoreko finantziario propioaren (dohaintzak, zerbitzuak ematea, salmentak) batez besteko %	38,1	37,8	39,5	▲ +1,7
Dirulaguntza publikoen bidezko finantziarioaren %, finantziario osoarekiko	37,1	38,1	37,7	▼ -0,4
Zuzenean jardueretara eta zerbitzuetara bideratutako erakundeen gastuaren %	85,4	82,6	82,7	▲ +0,1
Kanpoko kontu-auditoretzaren bat egin duten erakundeen %	26	28	32,0	▲ +4,0

KUDEAKETA- ETA KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
Emaitzak ebaluatzeko sistema (formalizatua) ezarri duten erakundeen %	35	38,3	39,7	▲ +1,4
Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	21,8	28,9	31,1	▲ +2,2
Gardentasun-planarekin (formalizatua) lotutako ekintzak egiten dituzten erakundeen %	-	9,1	2,8	▼ -6,30
Kalitate-ziurtagiriren bat duten erakundeen %	-	14,1	14,2	▲ +0,1
Interes-taldeeii jardueren memoriari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	86,5	83,4	88,9	▲ +5,5
Interes-taldeeii jardueren inpaktuari buruzko informazioa bidali ohi dieten erakundeen %	52	61	64,2	▲ +3,2
Kontuen egoerari buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	80,8	83,5	85,4	▲ +1,9
Entitatearen misioari eta balioei buruzko informazioa bidali ohi duten erakundeen %	70,1	74,9	76,6	▲ +1,7

HARREMANAK

Txostena	Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialako Liburu Zuria	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2021-2019
Datuen bilketa-data	2014	2019	2021	
Udalekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	72,9	29,3	▼ -0,8
Foru-aldundiekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	60	78,2	▲ +5,3
Eusko Jaurlaritzarekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	44,4	58,7	▼ -1,3
Gizarte-mugimenduekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	64,1	47,8	▲ +3,4
Unibertsitateekin harreman dezente edo harreman handia duten erakundeen %	-	41,5	65,3	▲ +1,2
Enpresekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	19,8	30,1	39,0	▼ -2,5
Alderdi politikoekin harreman dezente edo handia duten erakundeen %	14,5	18	19,4	▲ +1,4
Bigarren edo hirugarren mailako entitatearen bateko kide diren erakundeen %	58,7	66,4	62,8	▼ -3,6

8. COVID-19AREN PANDEMIAREN INPAKTUA

Barometroaren edizio honek atal berezia du Covid-19aren pandemiak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialan izan duen inpaktuari buruz.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Behatokiak 2020an egindako azterketak, "Covid-19aren inpaktua Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan" izenekoak²⁸, atal honetan jasotzen ditu pandemiak azken urteotan izan duen inpaktuaren datu nagusiak²⁹, bai erakundeetako pertsona hartzaileengan, bai jardueran eta zerbitzuan, bai pertsona boluntario eta ordainpekoetan eta haien baliabide ekonomikoetan.

Gogorarazi behar dugu azterketa hau pandemiaren inpaktuaren lehen unean egin zela (2020ko apirila), eta jarraian aurkeztuko ditugun datuak berriz 2021eko udaberrian jaso genituela (maiatzak 18 eta ekainak 30 artean), pandemiako urtebete igaro ondoren³⁰.

Horretarako, gehienbat lehenengo azterketan³¹ identifikatutako gaiak jasotzen ditugu galdetegian, eta item berri batzuk gehitu ditugu. Horrek aukera ematen du erakundeen eta hartzaileen egoeraren alderaketaren irudia eskaintzeko, eta pandemiaren inpaktuaren bilakaera ulertzeko.

8.1. ERAKUNDEEK HARTZAILEEKIN DUTEN ERLAZIOAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUA

Erakundeek identifikatutako egoera edo arazo batzuk aipatu dituzte, beraien jardueraren hartzaileekin duten erlazioari dagokienez.

Datuak adierazten dute 4 erakundetik 3 baino gehiagok identifikatu dutela urtebeteko pandemiaren ostean hartzaileen egoera okertu egin dela. Gainera, erdiak baino gehiagok adierazi du hartzaileek erakundeetan egindako eskariak aldatu egin direla.


²⁸Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak egindako txosten hau Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren eta Sareen Sarearen ekimena da, betiere, Covid-19aren krisiak EHSSko erakundeetan eta haien hartzaileengan duen inpaktuaren berri izateko. Hemen eskura daiteke txostena: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/Informe_COVID_19_eusk.pdf

²⁹ Datuak tentu pixka batez hartu behar dira, galdetegiko galderen atal honetan erantzun kopurua txikiagoa izan baita eta ehunekoa kalkulatzeko erabili den laginak +/-% 6,01eko errore-marjina baitu.

³⁰ Maila metodologikoan, gainera, kontuan izan behar da 2021eko barometroaren esparruan egin dela, eta bai informazioa jasotzeko prozesua, bai datuen tratamendua desberdinak direla 2020ko txostenean aipatutakoarekin alderatuta.

³¹ 2021eko barometroaren galdetegia kontsulta daiteke esteka honetan: <https://3seuskadi.eus/zer-egiten-dugu/hirugarren-sektorearen-diagnostikoa/2019-2022-proiektuak/?lang=eu>

ERAKUNDEEK EGUN IDENTIFIKATZEN DITUZTEN EGOERAK ETA EPE LABURREAN AURREIKUSTEN DITUZTENAK, HARTZAILEEKIN DUTEN ERLAZIOAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUARI DAGOKIONEZ. (%)



Zehazki, erakundeek % 76,1ek identifikatu du hartzaileen egoera okertu egin dela. Epe laburrerako aurreikuspenetan, okerrera egin dutela hauteman duten erakundeek ehuneko % 43,4ra jaisten da.

Kontrara, erakundeek % 4,5ek soilik adierazi du hartzaileen egoerak hobera egin duela, nahiz eta ehuneko hori % 14,6ra igotzen den epe laburreko aurreikuspenean.

Erakundeek % 57,4k identifikatu ditu aldaketak hartzaileen eskarrietan urtebeteko pandemiaren ostean, eta ehuneko % 49,3koa da erakundeek epe laburreko aurreikuspenak egiten dituztenean. Bestalde, 4 erakundetik 1ek (% 25,6) adierazi du hartzaileen profiletan aldaketak identifikatu dituela, eta artatutako pertsonen artean profil berriak ere sartu direla. Datozen hilabetei begira, erakundeek % 37,3k aldaketak aurreikusten ditu hartzaileen profiletan.

Erakundeek % 41,7k adierazi du artatzen dituen pertsonen kopurua igo egin dela eta % 53,7k epe laburrean igotzea aurreikusten du. Aldiz, erakundeek % 32,3k dio artatutako pertsonen kopurua jaitsi egin dela, eta % 19,2k epe laburrean jaitea aurreikusten du.

Gainera, erakundeek % 27,2k bere ohiko hartzaileen informazioa falta izan du azken urtean. Ehuneko hori % 11,4ra jaisten da epe laburreko aurreikuspenean.

8.2. ERAKUNDEEN HARTZAILEENGAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUA

Pandemiak erakundeetako hartzaileengan izan duen inpaktuak egoeren edo arazoen barietate handia islatzen du, eta horien artean nabarmentzekoa da osasun psikologikoak okerrera egin izana eta arrakala digitaletik eratorritako arazoak. Oro har, ikus daiteke epe laburreko aurreikuspenetan erakundeek egoera edo arazo guztiak murriztu egingo direla uste dutela.

ERAKUNDEEK EGUN IDENTIFIKATZEN DITUZTEN EGOERAK ETA EPE LABURREAN AURREIKUSTEN DITUZTENAK, PANDEMIAK HARTZAILEENGAN IZAN DUEN INPAKTUARI DAGOKIOEZ. (%)



Osasunari dagokionez, erakundeen % 74,1ek adierazi du azken urtean bere hartzaileen osasun psikologikoak okerrera egin duela igarri duela, eta ehuneko hori % 40,6ra jaisten da epe laburreko aurreikuspenetan.

Gainera, erakundeen erdiak baino gehiagok (% 57,8) identifikatu du bere hartzaileen osasun fisikoa okerrera egin duela. Ehuneko hori % 27,1era jaisten da datozen hilabeteetarako aurreikuspenetan.

Arretari dagokionez, erakundeen erdiak baino gehiagok (% 56,5) aipatu du bere hartzaileek arazoak dituztela aurrez aurreko edo online bidezko osasun-arreta jasotzeko, eta % 20,6k

adierazi du arazo hori egongo dela datozen hilabeteetarako aurreikuspenetan. Hartzaileek arreta terapeutikoa jasotzeko arazoak dituztela aipatu dute erakundeen % 54,7k. Ehuneko hori % 23,9ra jaisten da datozen hilabeteetarako aurreikuspenetan.

Arrakala digitaletik eratorritako arazoak aipatu dituzte erakundeen % 68,4k. Egoera horietan hartzaileek konexio falta, gailuen falta edo gaitasun digitalen falta izan dute. Erakundeen % 47,5ek adierazi dute arazo hori datozen hilabeteetan mantenduko dela.

Erakundeen % 44,6k identifikatu du bere hartzaileek hezkuntza arloko arazoak dituztela. Eskolak jarraitzeko arazoak dira, eskolako atzerapena eta abar. Erakundeen % 20,2k aurreikusten ditu hezkuntzako arazo horiek epe laburrean.

Nahi ez den bakardadea (babes-sarearen falta) larriagotu egin da pandemian; erakundeen % 57,7k identifikatu du arazo hori haien hartzaileei dagokienez eta % 28,1ek epe laburrean aurreikusten du. Erakundeen % 27,6k adierazi du hartzaileek ez dutela etxeko arretarik. Ehuneko hori % 13,7ra jaisten da erakundeen epe laburreko aurreikuspenetan.

Erakundeen % 55,6k adierazi du hartzaileek baliabide ekonomikoen falta izan dutela azken urtean, eta % 39,4k adierazi du epe luzeko aurreikuspenetan hartzaileen baliabide ekonomikoen falta hori aurreikusten duela. Era berean, erakundeen % 51,9k adierazi du hartzaileen pobrezia ugartu eta/edo materiala gutxitu egin dela, eta % 33k aipatu du kontu hori datozen hilabeteetarako aurreikuspenetan. Gainera, erakundeen % 42,8k adierazi du bere hartzaileek ordaindutako lana galdu dutela eta % 28k esan du arazo hori ikusten duela epe laburreko aurreikuspenetan.

3 erakundetik 1ek hauteman ditu etxebizitzarekin eta/edo bizileku-bazterkeriarekin lotutako arazoak hartzaileen artean (% 33). % 18,2k arazo horiek identifikatu ditu datozen hilabeteetara begirako aurreikuspen horretan. Bestalde, hartzaileen elikadura-arazoak aipatu dituzte erakundeen % 22,1ek. Datozen hilabeteetarako aurreikuspenen arabera, % 16,3k adierazi du elikadura-arazo horiek izango dituztela.

Erakundeen % 45,5ek adierazi du bere hartzaileek pandemiaren aurkako neurrietatik eratorritako arazoak dituztela, eta % 22,6k aurreikusten du datozen hilabeteetan ere izatea. Ingurune komunitarioko arazoak (gatazkak, etab.) hauteman dituzte erakundeen % 33,3k, eta % 17,9k uste du arazo horiek datozen hilabeteetan ere jarrai dezaketela.

10 erakundetik 4k adierazi du bere hartzaileek arazo administratibo eta juridikoak izan dituztela azken urtean (% 41,7) eta % 14,9k arazo horiek aurreikusten ditu hartzaileen artean epe laburrean.


10 erakundetik 3k identifikatu du bere hartzaileak indarkeria jasaten ari direla, genero-indarkeria barne (% 31). Datozen hilabetei begira, erakundeen % 17,9k aurreikusten du hartzaileek indarkeria pairatzen jarraitzea.

% 2,1ek beste arazo batzuk identifikatu ditu, hala nola informazioa lortzeko zailtasunak, hartzaileen arteko harreman sozialak murriztu izana isolamenduaren ondorioz edo pandemiak hartzaileen hainbat kolektiborengan izan duen inpaktu emozionalaren ondorioz (haurrak, adinekoak, etab.).

8.3. PANDEMIAK ERAKUNDEEN JARDUERETAN ETA ZERBITZUETAN IZAN DUEN INPAKTUA

Pandemiaren azken urte honetan izandako hainbat egoerak ere eragin dute erakundeen zerbitzuetan eta jardueretan. Gehien identifikatu direnak jarduera zehatzak bertan behera gelditu edo ezeztatzea edo jarduerak eta zerbitzuak moldatu eta berrorientatzea izan dira.

ERAKUNDEEK EGUN IDENTIFIKATZEN DITUZTEN EGOERAK ETA EPE LABURREAN AURREIKUSTEN DITUZTENAK, ZERBITZU ETA JARDUERETAN PANDEMIAK IZAN DUEN INPAKTUARI DAGOKIONEZ. (%)



Erakundeen % 77,1ek adierazi du jarduera zehatzak bertan behera utzi edo ezeztatu behar izan dituela. Datozen hilabeteetara begirako aurreikuspenek hobekuntza adierazten dute; izan ere, jarduerak bertan behera utzi edo ezeztatzea aurreikusten duten erakundeen ehunekoak % 32,5era jaisten da.

Nabarmenezkoa da erakundeen % 26,4k zerbitzuak itxi behar izan dituela urtebeteko pandemiaren ostean, eta datozen hilabeteetarako aurreikuspenaren arabera, erakundeen % 18,6k izango du arazo hori. Kontrara, erakundeen % 33,6k zerbitzu eta jarduera berriak txertatu behar izan dituzte eta % 43,9k datozen hilabeteetan egitea aurreikusten du.

Gainera, erakundeen erdiak baino gehiagok (% 58,7) adierazi du zerbitzuak edo jarduerak moldatu edo birbideratu behar izan dituela, pandemiak azken urteotan izan duen inpaktuarengatik, eta % 42,5ek identifikatu du datozen hilabeteetan egin beharko duela.

Erakundeen % 37,3k bere hartzaileen zuzeneko arreta murriztu behar izan du, nahiz eta % 11,1ek soilik aurreikusten duen datozen hilabeteetan murrizketa hori. Kontrara, erakundeen % 35,4k gainkarga izan dute azken urtean zuzeneko arretan, eta % 22,5ek datozen hilabeteetan gainkarga horri aurre egin behar izatea aurreikusten du.


Beste funtzio sozial batzuei dagokienez, erakundeen % 27,4k bere intzidentzia- edo sentsibilizazio-jarduera areagotu du pandemiaren azken urtearen ostean, eta % 30,6k epe luzean egitea aurreikusten du.

Giza baliabideen falta arazoa izan da erakundeen % 24,8rentzat eta % 20,9k adierazi du aurki izango dela.

Erakundeen % 22,7k arazo logistikoak izan ditu urte honetan, baina % 6,6k soilik aurreikusten ditu arazo horiek epe luzean. Erakundeen % 17,7k arazo administratiboak eta/edo juridikoak izan ditu, eta antzeko ehuneko batek (% 14,3) arazo horiek izatea aurreikusten du datozen hilabeteetan. Erakundeen % 13,8k osasun-arazoak izan dituzte osasun-arloko material faltarengatik eta beste arazo batzuegatik, baina % 7,1ek soilik aurreikusten ditu datozen hilabeteetarako. Azkenik, erakundeen % 4,4k segurtasuneko arazoak izan ditu, eta % 2k soilik aurreikusten ditu arazo horiek aurki.

8.4. PANDEMIAK ERAKUNDEETAKO BOLUNTARIOENGAN ETA ORDAINPEKOENGAN IZAN DUEN INPAKTUA

Arrisku psikosozialak eta boluntarioen parte hartzeko baldintzen aldaketak dira erakundeek aipatu dituzten egoera nagusietako bi, pandemiak lantaldeetako pertsonengan izan duen inpaktuari dagokionez.



Erakundeen % 63,5ek adierazi du egungo egoera edo arazoa direla erakundeetako pertsonen arrisku psikosozialak, hala nola estres-egoerek sortutakoak, narriadura emozionalak, etab. Datozen hilabetei begira, % 54,7k identifikatu du arrisku psikosozial horiek mantendu egingo direla.

Erakundeen % 62,9k adierazi du aldaketak egin behar izan dituela erakundeak boluntarioek parte hartzeko baldintzetan. Epe laburreko aurreikuspenean, erakundeen % 39k esan du boluntarioek parte hartzeko baldintzen aldaketa horiekin jarraituko duela. Gainera, erakundeen % 40 inguruk adierazi du boluntarioen kudeaketan zailtasunak izan dituela, hala nola komunikatzeko edo mobilizatzeko zailtasunak, jarduteko irizpide garbien falta, etab. Erakundeen % 13,1ek aurreikusten du datozen hilabeteetan zailtasun horiei aurre egin beharko diela.

Telelanaren, kontzilioaren eta abarren ondorioz lan egiteko baldintzak nabarmen aldatu direla eta, kudeaketan zailtasunak identifikatu ditu erakundeen % 41,6k, eta % 21,1ek adierazi du datozen hilabeteetan zailtasun horiek izaten jarraituko duela.

Gaixotasunaren edo berrogeialdiaren ondorioz hartutako bajak arazoa izan dira erakundeen % 37,4rentzat eta % 27,4k aurreikusten du egoera hori izango dela datozen hilabeteetarako.

Bestalde, erakundeen % 15,8k adierazi du erakundeko ordainpeko langileak kontratatzeke baldintzak aldatu behar izan dituela, eta ehuneko hori % 18,4ra igotzen da datozen urteetarako aurreikuspenari dagokionez.

Erakundeen % 11,3k adierazi du kontratuak ez berritzea arazotsua dela eta ehuneko hori % 21,7ra igotzen da epe laburreko aurreikuspenean. Era berean, % 7,9k adierazi du EEE edo ABEEE bat izan duela jarduera eten delako. Ehunekoa % 16,2ra igotzen da datozen hilabeteetarako aurreikuspenean.


Azkenean, osasun arloko arriskuak arazoa izan dira azken urtean erakundeen % 11,6rentzat. Erakundeen % 3,6k bakarrik adierazi du datozen hilabeteetan osasun-arriskuak aurreikusten dituela.

8.5. PANDEMIAK ERAKUNDEEN BALIABIDE EKONOMIKOETAN IZAN DUEN INPAKTUA

Pandemiak erakundeen baliabide ekonomikoetan izan duen inpaktuarekin lotutako egoera guztien artean, asko nabarmentzen da finantzazioaren gaineko ziurgabetasuna, bai egun, bai epe laburreko aurreikuspenean.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren 2021eko Barometroa

ERAKUNDEEK EGUN IDENTIFIKATZEN DITUZTEN EGOERAK ETA EPE LABURREAN AURREIKUSTEN DITUZTENAK, PANDEMIAK BALIABIDE EKONOMIKOETAN IZAN DUEN INPAKTUARI DAGOKIONEZ. (%)



10 erakundetik 8k adierazi du ziurgabetasuna dagoela egun finantzaketari dagokionez, eta % 75,2k epe laburreko aurreikuspenen aipatzen du.

Erakundeen % 41en berezko finantzazioa % 10 baino gehiago murriztu da (kuotak, zerbitzuak-kontratu pribatuak prestazioak, produktuen salmenta, etab.) eta % 20,3k murrizketa hori aurreikusten du datozen hilabeteetarako. Izatez, 10 erakundetik 3k zailtasunak adierazi du pertsona kopuru nabarmen baten kuotak eta/edo ordainketa partekatuar mantentzeko zailtasunak dituela, eta %19,3k uste du zailtasun horrek epe laburrean jarraituko duela. Bestalde, erakundeen % 29,2k adierazi du bere finantzaketa publikoa % 10 baino gehiago murriztu dela eta antzeko ehuneko batek murrizketa hori aurreikusten du datozen hilabeteetarako.

Ordainketetan izan diren atzerapenak, bai finantzazio publikoan, bai pribatuan, arazoa izan dira erakundeen % 27rentzat, eta epe laburreko aurreikuspenen, erakundeen % 11,4k aurreikusten ditu atzerapen horiek ordainketetan. Erakundeen % 25,9k aipatu du likidazioaren edo maileguen beharra duela, eta antzeko kopuru batek aurreikusten du datozen hilabeteetarako.

Gainera, 4 erakundetik 1i kontratu edo dirulaguntza publikoak eten dizkiote, eta % 23,6k hori aurreikusten du epe laburrerako. Halaber, erakundeen % 12,4k adierazi du erantzukizun publikoko zerbitzuen ezohiko gastuen finantzaketan defizita izan duela, eta % 10,6k datozen hilabeteetarako aurreikusten du.

Erakundeen % 4,8k adierazi du finantzaketa publikoa handitu zaiola pandemiaren inpaktuari erantzuteko, eta antzeko kopuru batek adierazi du hori aurreikusten duela datozen

hilabeteetarako. Legatuak edo dohaintzak % 10 baino gehiago igo zaizkiola adierazi du erakundeen % 3k eta soilik erakundeen % 1,8k aurreikusten du hori epe laburrerako.

8.6. HARTZAILEEKIN DAGOEN ERLAZIOAREN GAINEKO ERRONKAK PANDEMIAREN INPAKTUAREN OSTEAN

Pandemiak EHSSko erakundeetako hartzaileengan izan duen inpaktuak agerian utzi du pandemiaren inpaktuarengatik “galdutakoarekin” lotutako arazoak daudela, eta pandemiaren ondorioz arazo berriak sortu direla edo lehendik dagoeneko bazeudenak azaleratu. Erakundeek identifikatu dituzten erronkak hainbat arlotakoak dira.

Alde batetik, erakundeek pandemian zehar galdu den guztia berreskuratzeko erronka aipatu dute, aurrez aurreko lanari eta interakzioari dagokionez. Horri dagokionez, pandemiaren aurreko osasun-arreta eta arreta terapeutikoa aipatu dute, sarbidea bermatzeko arreta medikora, diagnostiko mediko azkarretara, tratamendu eta prozesu terapeutikoetara, etab. Halaber, laguntza berreskuratzea eta erakundeetako jardueren bitartez sortzen zen erlazioen dimentsioa berreskuratzea aipatu dituzte, hartzaileek aurrez aurreko jardueretan edo esku-hartze prozesuetan parte hartzeko aukera zutelako, taldekakoetan edo elkar laguntzekoetan, atsedean hartzeko edo harrerarako zerbitzuetan eta abar, besteak beste.

Gainera, pandemiak ekarri duen enpleguaren suntsiketaren inpaktua geldiarazteko eta lan-munduan txertatzea eta enplegarritasunaren zerbitzuak hobetzeko erronka aipatu dute. Horrek bereziki garrantzitsua dirudi kolektibo batzuentzat, eta gizarteratzeko aukerak bilatzea nabarmentzen dute, bai eta gazteei, gizarteratze-egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri edo desgaitasuna duten pertsoneri lan-munduan sartzeko prozesuetan laguntzea ere, besteak beste.

Bestalde, erakundeek mahi gainean jarri dituzte pandemiaren inpaktuarengatik sortu edo azaleratu diren arazoak, hala nola arrakala digitalarekin lotutakoak, hezkuntzako arrakalarekin, bakardadearekin edo buruko osasun-arazoak areagotzearekin. Izan ere, erantzun beharreko behar berriak sortu dira. Arrakala digitalari dagokionez, oro har gaitasun digitalen formazioa indartzeko erronka nabarmendu dute, baina, batez ere, kolektiborik zaurgarrienei dagokienez, eta pandemiak sortutako behararengatik hasi den ikaskuntza digitalari dagokionez.

Bestalde, itxialdiaren, distantzia soziala ezartzeko neurrien eta beste neurri batzuen ondorioz pandemiak izan duen inpaktu psikologikoak areagotu egin ditu buruko osasun-arazoak eta larriagotu egin ditu aurretik dagoeneko bazeudenak. Gainera, nahi ez diren bakardade-egoerak agerian utzi ditu, eta garrantzitsua da arazo hori jorratzea. Bi horien gaineko prebentzioa eta sentsibilizazioa funtsezko erronka da.

Hartzaileen profil batzuek egoera bereziki larriak izan zituzten batez ere pandemiaren hasieran, esaterako, bizileku-bazterkeriaren arazoak izan zituzten gizarte-bazterkerian dauden pertsonak. Profilik zaurgarrienei dagokienez, gainera, pandemiaren ondorioz sortu diren profil berriak artatzeko erronka ere aipatu dute, batez ere “ustezko normalitatearen” eta zaurgarritasunaren arteko mugan dauden pertsona horien kasuan. Hartzaileekin erlazioatzeko modu berriak bilatzea eta arreta behar sozial berrietara egokitzea ere izango dira aurki erantzun beharreko erronkak.

Azkenik, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren arloan zehazki kezagarria da pandemia hegoaldeko herrialdeetan izaten ari den inpaktua, batez ere txertoen kudeaketan, eta pandemiaren aurkako borrokan modu global, solidario eta jasangarrian aurrera egiteko erronka aipatu dute.

8.7. ERAKUNDEEN ERRONKAK PANDEMIAREN INPAKTUAREN OSTEAN

Erakundeek identifikatzen duten erronka nagusietako bat lotuta dago erakundeen finantzaketarekin eta jasangarritasun ekonomikoarekin. Pandemiaren inpaktuak eragina utzi du erakundeetako baliabide ekonomikoetan, horregatik planteatzen dute erakundeen jarduerari eutsi ahal izateko finantzaketa-iturri berriak edo gehiago bilatzeko beharra.

Halaber, askok partekatzen dute erakundeetako langileak mantentzeko erronka, baita sortzen doazen behar berriei erantzuteko profesional berriak izatea ere. Ordainpeko pertsonen artean ere pandemiaren inpaktuak utzitako arrisku psikosozialei erantzuteko erronka edo esku hartzean jarduten duten lantaldeak inpaktu hori kontuan hartzeko formatzea ere nabarmendu dute.

Erakundeetako boluntarioen parte-hartzean eragin handia izan du pandemiak eta erakundeak bereziki kezkatuta daude pandemia aurreko parte-hartze mailara itzultzearekin, edo hori ezin bada, parte hartzeko espazioak eskaini ahal izateko boluntarioen jarduera birpentsatzearekin.

Hartzaileen artean behar sozial berriak sortzeko behar horiei erantzun ahal izateko erronka zabaltzen du, eta zerbitzuak eta programak egokitu edo sortzeko, edo hainbat egoerari modu zehatzean erantzuteko arreta indibidualizatuagoa eskaintzeko. Horri dagokionez, errealitate soziala aztertzeko beharra ere aipatu dute, beharrak identifikatu eta erantzunak eskaintzeko.

Horri lotuta, beste erakunde batzuekin sinergiak identifikatzeko eta beharrentzako erantzunetan elkarrekin lan egin ahal izateko lankidetzak indartzeko erronka aipatu dute, bai eta beste eragile publiko eta pribatu batzuekin erlazio gehiago eta dibertsagoak bilatzeko erronka ere.

Kudeaketari dagokionez, erakundeen eraldaketa digitala agerian geratu da lehentasunezko erronka gisa pandemian zehar, eta ez soilik gailuak eta tresna edo gaitasun digitalak izateari dagokionez, baizik eta, batez ere, hartzaileei zuzendurako jardueretan eta zerbitzuetan tresna teknologikoak txertatzeari dagokionez. Era berean, erakundeek egokitzapenaren eta malgutasunaren erronka aipatzen dute, egoera berri eta aldakorretara eta ziurgabetasunaren kudeaketara egokitzeko.

Jarduerari dagokionez, erakundeek kezka adierazi dute beraien intzidentzia sozialaren jarduera pandemia aurretik zegoen mailan berreskuratzeko, eta sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzetan jarri dute arreta, batez ere, jardueraren barruan ekintza hori oso kaltetua izan den kasuetan. Halaber, adierazi dute administrazioaren edo kudeaketaren eta jarduera zuzenaren artean oreka handiagoko formulak bilatu beharko liratekeela, izan zerbitzuen hornikuntzan, izan intzidentzian.

8.8. PANDEMIAREN INPAKTUAREN DATUAK ALDERATZEA 2020-2021

Jarraian, taula batzuk ageri dira txosten honetako datuekin eta Behatokiak 2020an pandemiaren inpaktuari buruz egindako txosteneko datuekin, eta pandemiaren hasieran zegoen egoera eta handik urtebetera zegoena alderatzeko aukera ematen dute. Gogoratu behar da datuek erreferentzia egiten diotela erakundeek hartzaileei, jardueri eta zerbitzuei, boluntarioei eta ordainpekoei eta baliabide ekonomikoei dagokienez identifikatutako egoerei.

Datuen alderaketak erakusten du urtebeteko pandemiaren ondorioz egoera edo arazo batzuek presentzia galdu dutela eboluzionatzen joan den pandemiaren egoeraren arabera, eta normaltasunaren maila jakin bat berreskuratzea posible izan dela. Beste egoera batzuk, ordea, areagotu egin dira.

Azken horien artean nabarmentzekoak dira hartzaileek erakundeek egindako eskarrietan izan diren aldaketak, osasunak okerrera egin izanaren arazoak edo hartzaileen osasun-arreta eta erakundeetako zerbitzu eta jardueretako baliabideen falta. Baliabide ekonomikoei dagokienez, egoera asko daude: ziurgabetasuna finantzaketari dagokionez, kuotak edo ordainketa partekatuak mantentzeko zailtasunak, edo finantzaketa publikoaren eta berezkoaren murrizketa, besteak beste.

HARTZAILEEKIN DAGOEN HARREMANA

Txostena	Covid-19aren inpaktuak EHSSeko erakundeetan	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintasuna 2020-2021
Datuen bilketa-data	2020	2021	
Erakundeen % -(e)k identifikatu du...			
Hartzaileen egoera okertu egin da	-	76,1	-
Aldaketa pertsona hartzaileen profiletan	46,2	57,4	▲ +11,2
Arreta emandako hartzaileen kopurua handitzea	-	41,7	-
Arreta emandako hartzaileen kopurua gutxitzea	-	32,3	-
Ohiko hartzaileen egoerari buruzko informazio-gabezia	38	27,2	▼ -10,8
Aldaketak hartzaileen profiletan (profil berriak gehitu dira)	26,6	25,6	▼ -1,0
Hartzaileen egoera hobetu egin da	-	4,5	-

HARTZAILEAK

Txostena	Covid-19aren inpaktuak EHSSeko erakundeetan	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintas una 2020- 2021
Datuen bilketa-data	2020	2021	
Erakundeen % -(e)k identifikatu du...			
Osasun psikologikoak okerrera egitea	-	74,1	-
Soldata arrakalatik eratorritako arazoak	66,3	68,4	▲ +2,1
Osasun fisikoak okerrera egitea	52,2	57,8	▲ +5,6
Egoera honetan areagotutako nahi gabeko bakartasuna (laguntza-sarerik eza)	60,3	57,7	▼ -2,6
Osasun-arreta presentziala edo onlinekoa emateko arazoak	52,2	56,5	▲ +4,3
Baliabide ekonomiko gabezia	64,1	55,6	▼ -8,5
Arazoak arreta terapeutiko edo psikosozialera, presentzialera edo onlinekora sartzeko	-	54,7	-
Txirotasuna ugaritzea edota materiala gutxitzea	50,5	51,9	▲ +1,4
Pandemiaren aurkako neurrietatik eratorritako arazoak (arretarik eza, erreferenteak galtzea...)	68,5	45,5	▼ -23
Hezkuntza-arazoak (eskolak jarraitzeko zailtasuna, eskola-atzerapena eta abar)	45,1	44,6	▼ -0,5
Ordaindutako lanaren galera	52,2	42,8	▼ -9,4
Administrazio-arazoak eta arazo juridikoak	43,5	41,7	▼ -1,8
Arazoak komunitate-inguruan (gatazkak, arriku-egoerak...)	43,5	33,3	▼ -10,2
Ostatu, etxebizitza edota bizitegi arloko bazterketarekin lotutako arazoak	41,3	33,0	▼ -8,3
Indarkeria, baita itxialdiak areagotutako genero-indarkeria ere	36,4	31,0	▼ -5,4
Etxean arreta falta izatea (adingabea, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak...)	36,4	27,6	▼ -8,8
Elikadura-arazoak	41,3	22,1	▼ -19,2

JARDUERAK ETA ZERBITZUAK

Txostena	Covid-19aren inpaktuak EHSSeko erakundeetan	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintas una 2020- 2021
Datuen bilketa-data	2020	2021	
Erakundeen % -(e)k identifikatu du...			
Jarduera zehatz batzuk eten edo bertan behera gelditzea	81	77,1	▼ -3,9
Zerbitzuak edo jarduerak aldatu edo berrorientatzea (on line formatura bihurtzea, telefono bidezko laguntza...)	83,2	58,7	▼ -24,5
Hartzaileei zuzeneko arreta murriztea	48,9	37,3	▼ -11,6
Zuzeneko arretan gehiegizko karga	33,2	35,4	▲ +2,2
Zerbitzu berriak edo jarduerak txertatzea	38,0	33,6	▼ -4,4
Intzidentzia-jarduerak ugaritzea (sentsibilizazioa, salaketa, eskubideak sustatzea...)	41,8	27,4	▼ -14,4
Zerbitzuak ixtea	46,2	26,4	▼ -19,8
Giza baliabideen gabezia	19	24,8	▲ +5,8
Arazo logistikoak	37,5	22,7	▼ -14,8
Administrazio-arazoak edota arazo juridikoak	27,7	17,7	▼ -10
Osasun-arazoak (osasun materiala falta da eta abar)	51,6	13,8	▼ -37,8
Segurtasun-arazoak	19,6	4,4	▼ -15,2

BOLUNTARIOAK ETA ORDAINDUTAKO PERTSONAK

Txostena	Covid-19aren inpaktuak EHSSeko erakundeetan	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintas una 2020- 2021
Datuen bilketa-data	2020	2021	
Erakundeen % -(e)k identifikatu du...			
Arrisku psikosozialak (estres-egoerak, higadura emozionala...)	63,6	63,5	▼ -0,1
Aldaketak boluntarioen partaidetza-baldintzetan	-	62,9	-
Jardueraren kudeaketan arazoak lan-baldintzetan oinarritzko aldaketak daudelako (tegelana, kontziliazioa...)	69	41,6	▼ -27,1
Zailtasunak borondatezko pertsonen kudeaketarekin lotuta (komunikazioa, mobilizazioa, jarduteko irizpide argien gabezia...)	40,8	40,1	▼ -0,7
Gaixotasunagatiko bajak edo berrogeialdia	45,1	37,4	▼ -7,7
Aldaketak soldatapeko langileen kontratazio-baldintzetan	60,9	15,8	▼ -45,1
Osasun-arriskuak (babes-materiala faltan...)	50,4	11,6	▼ -38,8
Kontratuak ez berritzea	15,2	11,3	▼ -3,9
Jarduera eteteagatik izandako EEEak edo ABEEEak	24,5	7,9	▼ -16,6

BALIABIDE EKONOMIKOAK

Txostena	Covid-19aren inpaktuak EHSSeko erakundeetan	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren barometroa.	Desberdintas una 2020- 2021
Datuen bilketa-data	2020	2021	
Erakundeen % -(e)k identifikatu du...			
Finantzazioari buruzko ziurgabetasuna	63,6	80,1	▲ +16,5
Norbere finantzazioa % 10 baino gehiago murriztea (kuotak, zerbitzuak-kontratu pribatuak-, produktuak saltzea...)	31,0	41,0	▲ +10,0
Pertsona ugarik kuotak edota ordainketa partekatutako mantentzeko zailtasunak	10,9	30,4	▲ +19,5
Finantzazio publikoa % 10 baino gehiago murriztea	10,3	29,2	▲ +18,9
Atzerapenak ordainketetan (finantzazio publikoa edo pribatua)	25,0	27,0	▲ +2,0
Likidezia-gabezia / maileguen beharra	14,7	25,9	▲ +11,2
Kontratuak edo dirulaguntza publikoak bertan behera gelditzea	17,8	25,4	▲ +7,6
Erantzukizun publikoko zerbitzuetako aparteko gastuen finantzaketan defizita	-	12,4	-
Finantzazio publikoa ugaritzea pandemiaren inpaktuari erantzuteko	10,3	4,8	▼ -5,5
Dohaintzak eta ondareak % 10 baino gehiago handitzea	0,5	3,0	▲ +2,5